

EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAREN KANONA

1. Lanaren ikerketa esparrua

Euskal literatura garaikidearen kanona nola eta zein beharri erantzuteko sortu den aztertzea da lan honen zeregin nagusia. Izan ere, orain arteko literatur azterketa gehienak literatur balioetara mugatu dira batik bat, baina literatura funtzio komunikatibo gisa ulertzeak teoria eta azterketa berrien beharra ekarri du, ezinbestean. Egun literaturaren kontzeptu hau aztertzeke metodologia emankorra Sistema Anitzen Teoria dugu, baina Euskal Herrian, oraindik ere, arreta gutxi eskaini zaio.

Teoria honen hatsarre garrantzitsuena literatura sistema komunikatiboa izatea da, eta honenbestez, literatura aztertzean instituzio literarioa bere osotasunean aztertu beharra dago testuaren balioa ulertzeko orduan. Izan ere, literatur instituzioa da (argitaletxe, hezkuntza instituzio, idazle, irakurle...) literatur kanonaren oinarriak finkatzen dituena.

Lan honek bi helburu dauzka: batetik, literatur instituzioak nola funtzionatzen duen argitzea, eta batez ere, nola bihurtzen den idazle bat kanoniko kanonizaziorako beharrezko diren baldintzen azterketaren bidez. Bigarren mailan literatur kanonaren ezarpenean gehien eragiten duen elementua hartu nahi nuke aztergai: irakaskuntza sistema. Izan ere, eskolatik bideratuko da zer irakurriko den, bertatik sortuko dira saltzen duten eta ez duten idazleak, bertan sortuko da idazle baten eta bestearen irudia, eta bertarako sortuko dira argitaletxeak. Beraz, berebiziko garrantzia dauka zein literatura eta nola irakasten den aztertzeak, baita hautaketa hori noren esku dagoen ere. Ikastetxeek idazle gutxi batzuei ematen die zilegiztapen teorikoa, eta zilegiztapen horrek eragin handia du literaturaren zentro eta periferiaren arteko indar harremanetan.

Lanak euskal literatura garaikidea besarkatu nahi du, hain zuzen ere, helduentzako literatura idatzia. Horretarako, 1975-2000 urtealdia hartuko dugu aztergai, jakina baita egun indarrean dagoen kanonaren oinarriak urte horietan zehar finkatu zirela. Irakaskuntzaren azterketa egiteko, bigarren hezkuntzan diharduten Eibarko ikastetxeak izango ditut aztergai. Horretarako, irakaskuntzaren alorreko ikerlanak bi azpiatal izango ditu; lehenengo eta behin, aurrez aurreko galdeketak egingo ditut ikastetxe publiko zein pribatuetan. Geroago zehaztuko ditut galdeketon helburuak, oraingo ezan dezadan literatur instituzioak duen sistemak irakaskuntzan nola eragiten duen aztertzeraz bideratuko ditudala galdeketok: sariei irakaskuntzak ematen dien garrantzia neurtzeraz, kasu. Bestetik, ikastetxeetan Euskal Hizkuntza eta Literaturako zein liburu erabiltzen den zehaztu ondoren, testu-testuliburu horien azterketa egingo nuke: zein idazle aipatzen diren, idazle horren zein lan, eta abar. Honela, irakaskuntzak kanonean nola eragiten duen aztertzeaz gain, ikasleek literaturaren ikuspegi zabalagoa eta zaletasun handiagoa izan dezaten bideak proposatu nahi nituzke. Izan ere, literatura osasuntsu baten biziraupenerako behar-beharrezkoa da literatur kanonaz gain ikasleei literaturaren ikuspegi zabala eskaintzea. Hori dela eta, ikerlan honen eremu aplikazional nagusia irakaskuntzaren arloan kokatzen da.

2. Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera

Ezinezkoa dirudi literatura gertaera diskurtsibo gisa soilik ulertzea, hori baino sistema konplexuagoa dauka literaturak bere baitan. Hori dela eta, bere osotasunean ulertzeko kontuan izan beharko dugu gizarteko eta unean uneko parametroek nola eragiten dieten; hain zuzen, izaera komunikatiboari, irakurleak idazlearen sorkuntzan duen eraginari, eta beste hainbat faktoreri gizarteko eta unean uneko parametroek nola eragiten dieten.

Literaturaren azterketa gehiena lehendik sailkatuta dauden lanak (eta honi oso lotuta doa idazlearen izena) aztertze bideratzen da, sailkapen hori nola eta zergatik egin den ikertu gabe. Baina, ez dago literaturan “literatur balio unibertsalik”, eta beraz, arriskutsua izan daiteke “literatura onaz” eta “literatura txarraz” hitz egitea etiketa horiek nork eta zergatik jartzen dituen aztertuta gabe.

Literatur azterketaren joera berritzaileek (Sistema Anitzen Teoria eta Kulturaren Soziologiaz ari naiz) literatura komunikazio sistema gisa planteatu dute, hau da, literatura ez da literatur lanera mugatzen, bere ekoizpen eta harrerak ekintza sozialak dira¹. Eta literaturaren harreman soziokultural gisa mantentzen duten elementuek osatuko dute Literatur Institutuzioa: ekoizle, kritikari, hezkuntza instituzio, aldizkari, komunikabide, banketxe, eta abarrek.

Literatur Institutuzioa da, hain zuzen, literatur lanari balioa eman edo kentzen diona, eta beraz, berau da kanona erabakitzen duena. Horregatik, lan honen bidez instituzio horren azterketa zehatza egin gura dut, horrela soilik ulertu ahal izango dugulako nola irits daitekeen idazlea unean uneko literatur izarra izatera. Beraz, literatur lana baino, berau ulertzeko eta baloratzeko erabiltzen ditugun irizpideak nork eta nola sortzen dituen aztertuta nahi nuke, hor ezkututzen baita kanonaren eraketaren gakoa. Gainera, kanonizazio prozesuetan idazlearen hautu teoriko- literarioak nahiz bilakaera pertsonalak eragin handia izan ohi du. Ondoko lerrootan euskal kanona egun zertan den azaltzen saiatuko naiz ahalik eta modu argiengan.

Duela hogeita bost urte pasatxo (eta Frankoren diktadura amaitzearekin batera) euskal literaturaren loratze berri bat gertatu zen. Idazleen belaunaldi berriak haize berriak ekarri zituen euskal literaturara, eta zergatik ez, literatura bera ulertzeko modura ere

¹ J. Mukarovsky, 1934, apud Fernando Lázaro Carreter in 1986: 155

bai. Koldo Izagirre eta Bernardo Atxagak sinaturiko “Ez dezagula konposturarik gal, halere” manifestua (1975) dugu loratze haren lekuko, pixkanaka-

-pixkanaka indartzen ari zen belaunaldiaren aldarri garrantzitsuenarekin: literaturaren autonomia.

Finean, poesia sozialarekin hautsi nahi izan zen. Literatura abertzaletasunarekiko eta hizkuntzarekiko konpromisotik askatu nahi izan zen, eta idazle mailako –eta beraz, literaturarekiko- konpromisoarekin ordezkatu. *Ustela* aldizkariaren bidez ezagutarazi ziren jorratu nahi ziren bide berriak, baina denborak eskaintzen duen perspektibarekin begiratuta, argi ikus dezakegu bi idazle haiek ibili nahi zituzten bideak ezberdinak zirela hasiera-hasieratik, eta denbora gutxiren buruan desagertu zen *Ustela*. Koldo Izagirrek literaturaren autonomia aldarrikatuz baina errealitateari muzin egin gabe ibili du gaur arterainoko bide luzea, berak aitortu duen moduan, beraiek ere inguruarekiko pertsona konprometituak baitziren. Bernardo Atxagak *Pott banda* sortu zuen Joseba Sarrionandia, Ruper Ordorika, Jimu Iturralde, Jon Juaristi eta Manu Ertzillarekin batera, eta talde honek (Atxagak eta Sarrionandiak, batik bat) ezarri zuen gaur arte literaturan mantendu² den kanona. Talde honek ere zenbait aldizkari atera zuen, eta ideologia berria ezagutarazi zen bertan. Honen inguruan azterketa garrantzitsua daukate Uria eta Iñurretak³, baina labur-labur esanda, *Ustelak* proiektu nazionala literaturaren bidez bultzatu behar zela zioen; aitzitik, inori zerbitzeko baino beraien burua argitzeko zeudela zekarren *Pott taldearen* lehen alearen azalak.

Hala ere, eta *Ustelarekin* gertatu bezalaxe, *Pott bandan* ere bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta Joseba Sarrionandiak Izagirreren planteamendutik hurbil zegoena hartu zuela esango nuke: euskaraz idatziriko literatura autonomoaren aldarria.

² “mantendu” Ibon Sarasolak proposaturiko zentzuan

³ Uria & Iñurrieta, 1982, <http://www.armiarma.com/andima/susa/susa0502.htm>

Zehaztasun batzuk gora-behera, egun dagoen kanona Pott taldeak aldarrikaturikoa da. Izan ere, Pott bandak literatura buruaskia aldarrikatzeaz gain, literatura buruaski instituzional honen kanona definitu zuen, instituzio honek bere egituraketa eta ardatzak zein ziren zehaztea eskatzen baitzuen. Joseba Gabilondok zehaztu bezala, Pottek lehen munduko literatur tradizio berezi bat (sinbolista eta modernista frantses eta ingelesek bereziki garatutakoa) eta euskal literatur tradizio berezi bat (Lizardi eta Lauaxeta bai, Aresti soziala ez...) hautatu zuen bere literaturgintzaren oinarri eta abiapuntutzat. Pott taldea abangoardia europar hegemonikoei (dadaismoa, futurismo italiarra, surrealismo frantsesa eta espresionismo alemaniarra) mende hasieran hartu zituzten jokabideak bereganatuz eratu zen⁴.

Beraz, orduantxe hasi zen literatura hizkuntzaren eta politikaren hatzaparretatik askatzen. Pott taldearen ondoren, euskal literatura literatur instituzio gisa eratu zen: Unibertsitateko literatur kritika, idazle profesionalak, literatur sariketak, aldizkariak, literaturari buruzko hitzaldiak...

3. Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia

Esan dezadan, lehenik, gai hau ikertzen ari naizela, tarteka, azken bi urteotan. Berritasun handia duen gaia da, eta berau aukeratu dut nire doktorego tesia egiteko. Orain arte ezin izan diot gaiari nahi bezala heldu denbora kontuengatik, baina tarteka bibliografia ugari bildu eta irakurri dut. Egun, Jon Kortazar literatur kritikaria eta Patxi Juaristi soziologoa ditut tesi zuzendari, eta beka honek tesian buru belarri sartzeko aukera emango lidake. Bi tesi zuzendari hauen garrantzia handia da proposatzen dudan ikerketa lan hau egiteko. Izan ere, lanak bi azpiatal ditu, bata soziologiari

⁴ “Etiopia-z Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan”, <http://www.susa-literatura.com/emailuak/etiopia/etio10.htm>

dagokiona (galdeketak eta datuen irakurketa) eta bestea literatur sistemari dagokiona. Lehenengoari dagokionez, galdeketak eraginkorrak izan eta ahalik eta akats tarte txikienarekin egiteko ezinbesteko laguntza dut Patxi Juaristi soziologo eta EHUko irakasle denarena. Literatur sistemari dagokionez, ezaguna da Jon Kortazarrek zenbat lan egin duen literaturaren inguruan; gainera, egun indarrean dagoen kanona ulertzea ezinezkoa da Pott bandak izaniko eragina aztertu gabe, eta J. Kortazar talde horretako kide izan zen taldearen azken urteetan.

Nire esperientziari dagokionez, 2000. urtean Euskal Linguistika eta Filologiako doktoretza ikastaldia gainditu eta 2002. urtean Ikerketarako Gaitasun Agiria eskuratu nuen euskal literaturaren soziologiaren azterketa baten bidez. Horrez gain, 1999an Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik lankidetzak beka lortu nuen euskal literaturaren irakurlearen gaineko azterlan bat egiteko.

Orain arte zenbait artikulua idatzi ditut euskal idazleen gainean⁵, eta hainbat kongresu eta ikastaro egin ditut literaturaren inguruan.

4. Helburuak

1. Sistema Anitzen Teoriaren ekarpena aztertu
2. Euskal literatura garaikidearen sistemaren azterketa egin. Horretarako, euskal liburugintza, sariketak, kritikak eta irakaskuntzak osatzen duten egitura aztertuko dut.

2.1. Sariketen azterketa 1975-2000 urteetan zehar.

Literaturan gehien eragiten duten sarien azterketa eta hauen kanonarekiko lotura aztertu nahi nuke.

⁵ Alonso, Idurre, 2004, "Koldo Izagirre: Nube sobre memoria" in *60 poetas gallegos, catalanes y vascos*, Albaniako Unibertsitatea
Alonso, Idurre, 2004, "Ricardo Arregi: la compleja simplicidad de la poesía, *Quimera* 234.

2.2. Kritikei dagokienez, kritikek eta sariak mendekotasun harremanik ote duten argitu gura nuke, eta kritikek zenbateko pisua izaten duten idazleen kanonizazio prozesuetan.

2.3. Bigarren Hezkuntzako ikastegi pribatu nahiz publikoetan galdeketak burutuko dizkiet ikasle nahiz irakasleei. Hona hemen galdeketa hauekin lortu nahi ditudan helburuak banan-banan:

2.3.1. Ikasle zein irakasleen gustuak egungo kanon literarioarekin bat datozen argitu gura nuke. Batetik, euskal kulturaren ondasun diren idazleak ikasleen gustuko diren argitzeko, eta bestetik, idazle kanonikoez gain literaturaren inguruan duten ezagutza neurtzeko. Honela, ekintza pedagogikoaren arrakasta zenbaterainokoa den ikusiko dugu. Gainera, idazlerik gustukoena nola ezagutu dituzten jakiteak ere berebiziko garrantzia dauka, kanonizazio prozesuan literaturaren instituzioak botere mailarik handiena non daukan eta kanonizaziorako beharrezko diren baldintzen hurrenkera zehazteko.

2.3.2. Ikastetxeetan generoei ematen zaien lekua argitu nahi dut, kanonizazio prozesuak generoetan ere gertatzen baitira.

2.3.3. Eskolan testu-liburuetan agertzen direnez gain beste idazle/ literatur- lanik lantzen den ikusiko dugu. Izan ere, euskal idazleek kezka handia erakutsi dute azken urteotan gai honen inguruan.

2.3.4. Idazle batzuk hautatu eta beraien zein lan irakatsi den zehaztu. Honela, eskolak idazlearen beraren edo lan baten edo bestearen kanonizazioa bultzatzen duen argituko dugu.

2.3.5. Azkenik, liburuak hautatzean ikasle zein irakasleen hautaketaren arrazoiak kokatu nahi ditugu literatur

sisteman, hau da, literatur instituzioaren zein faktorek eragiten duen aukeraketa prozesuan: kritikek, sariek, idazleak, e.a.

2.4. Galdeketen bidez ikastetxe bakoitzean zein testu-liburu erabiltzen den ere jakin ahal izango dut, eta testu-liburu hauen azterketa egingo dut.

3. Azkenik, eta aurreko pausu guztiak eman ondoren, euskal idazle kanonizatuen zerrenda osatuko dut.

5. Materialak, baliabideak eta lan metodologia

Hasteko, Sistema Anitzen Teoria zertan den ongi ulertzeko, teoriaren sortzailearen liburuak irakurtzeaz gain, munduan zehar egin diren kanon azterketen aplikazioen berri jaso beharra dago. Behin kanonizazioak nola aztertu zehaztuta, euskal literatura aztertzeari ekin dakioko.

Euskal literatura helduaren 1975-2000 urteen arteko kanonizazio prozesua aztertzeko, behar-beharrezkoa izango da liburutegiez gain artxibategiak ere erabiltzea. Batetik, orduko aldizkari literarioak hustu behar direlako orduko proposamen literarioak aztertzeko. Bestetik, bibliografia bilketa handia behar delako hogeita bost urteko literatur liburu guztien argitalpenak ezagutu, zein kritika jaso zuten aztertu eta sarien berri izateko. Esan beharrik ez dago ezin direla kritika guzti-guztiak aztertu, baina bai lanik garrantzitsuenak.

Horrez gain, liburu- dendetara joan eta eskoletako testuliburuaz azterketa egitea komeni da, testuliburuok zein idazle hartzen dituzten barne zehazteko.

Bukatzeko, ikerketa soziologikoen gaineko informazioa jaso eta inkestak prestatzeari ekingo behar zaio ikastetxeetan burutzeko helburuarekin.

Bibliografia anitza erabili behar da, eta ziurrenik lanak aurrera egin ahala, bibliografia bera ere moldatu eta zabaltzeko beharra egongo

da . Hautatutako bibliografia hemen aipatzeak luze joko luke, beraz, eranskin gisa sartu dut bukaeran.

6. Lana garatzeko kronograma

1. Lehenengo hilabeteen: Sistema Anitzen Teoriaren ekarpenak azaldu eta egun euskal kanon literarioak literaturan sortzen dituen gabeziak zehaztu.
2. Bigarren eta hirugarren hilabeteak: Euskal literatur sariketak aztertu. Saririk garrantzitsuenak nork irabazi dituen, ze eragin izan duen saria irabazteak eta sariari esker liburuak itzulpenik izan duen aztertu.
3. Laugarren eta bosgarren hilabeteak: inkestak prestatzeko erabili Patxi Juaristi soziologoarekin batera. Bere laguntzaz galderak modu argi eta egokiz prestatu eta galdeketon lagina zehaztu.
4. Seigarren eta zazpigarren hilabeteak: Galdeketak egin ikastetxe publiko zein pribatuetan.
5. Zortzigarren hilabetea: Galdeketetatik jasotako datuen irakurketa P. Juaristiren laguntzaz.
6. Bederatzigarren hilabetea: Bigarren hezkuntzako testu-liburuak aztertu. Hauetan zein idazle eta idazle horien zein lan lantzen diren argitzea da kontua, honela liburu kopuruak, sariketek eta kritikek irakaskuntzaren munduan zein eragin duten argitzeko.
7. Hamar, hamaika eta hamabigarren hilabeteak: Aurreko hilabeteetan bildutako datu guztiak aztertu eta euskal literaturaren instituzioak nola funtzionatzen duen zehaztuko dut: baldintzen hurrenkera eta mendekotasun harremanak. Bukatzeko, euskal idazle kanonikoen zerrenda osatuko dut.

7. Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa

Ikerlan honek bi berrikuntza garrantzitsu dakartza: batetik, literatura bera aztertzeko erabiliko dudan Sistema Anitzen Teoria Euskal Herrian oraindik ere oso berria da. Ez da teoria honen gaineko lanik egin, ezta teoriaren beraren azterketarik ere. Bigarren berrikuntza gaian bertan dago. Izan ere, euskal literatura garaikidearen kanonari buruz egiten den lehenengo ikerlana da. Lanak Frankismo osteko hogeita bost urte besarkatzen ditu, eta horrek dokumentazio eta bibliografia asko biltzea eskatzen du, eta iruditzen zait gerora begira ere oso erabilgarriak izan daitezkeela literaturgintzan diharduen edozeinentzat datu bilketa hauek, bai literatur azterketetarako eta baita irakaskuntzaren arlo aplikazionalerako ere. Gainera, lan honek literatura bi ikuspegitatik aztertu nahi luke: literaturaz barneko ikuspegia eta ikuspegi soziologikoa. Lehenengo zatia zuzentzeko eta bideratzeko Jon Kortazar literatur kritikaria izango dut alboan, eta galdeketak prestatu eta burutzeko, berriz, Patxi Juaristi soziologoa. Ez da, beraz, edozelan landutako ikerlana izango.

ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA

Abrisketa, A., 1985, "Dun dum Txillardegi & Ray Sugar Atxaga", *Pamiela* 9, <http://www.armiarma.com/andima/pami/pami0917.htm>

Aldekoa, Iñaki, 1999, "Bernardo Atxagaren unibertso literarioa (1976-1988). Literatura eta kritika" in *Atxaga Baionan*, Hiria & Egan, Alegia, 15-32. or.

Apalategi, Ur, 1998, "Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa", *Uztaro* 27, 63-82. or.

Apalategi, Ur, 2001, "Errealismoaren eraberritzea eta kokapena 90eko hamarkadako euskal literaturan" in Kirmen Uribe, 2001, *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*, UEU, Bilbo, 41-56. or.

Atxaga, Bernardo, 1993, "Arazo politikoak ez dio herriari arnasarik hartzen uzten", <http://www.argia.com/mendea/hemero/93atxa.htm>

Bourdieu, Pierre & Passeron, Jean-Claude, 2001, *La reproducción: Elementos para una Teoría del Sistema de Enseñanza*, Popular, Madril.

Bourdieu, Pierre, 1997 (berrarg.), *Las reglas del arte*, Anagrama, Bartzelona.

Even-Zohar, Itamar, 1994, "La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa", in *Avances en Teoría de la Literatura*, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, Santiago de Compostela, 357-377. or.

_____, "Teoría del Polisistema", <http://members.tripod.com/itamarez/>

_____, 1999, "Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la Teoría de los Polisistemas", in *Teoría de los Polisistemas*, Arco, Madril, 23-52. or..

Figueroa, Antón, 2001, *Nación, literatura, identidad*, Xerais, Vigo.

Gabilondo, Joseba, 1993, "Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan: ETIOPIA-z", *Egan 1993 (2)*, 33-65. or.

Idatz & Mintz aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Iglesias Santos, Montserrat, 1994, "El sistema literario: Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas", in *Avances en Teoría de la Literatura*, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, Santiago de Compostela, 309-356. or.

_____, 1999, "La Teoría de los Polisistemas como desafío a los estudios literarios", in *Teoría de los Polisistemas*, Arco, Madril, 9-20.or.

Jasone Osoro, 1999, "Euskal emakume sortzaileen plazaratzea: arazoak" in Kirmen

Lambert, José, 1999, "Aproximaciones sistémicas y la literatura en las sociedades multilingües", in *Teoría de los Polisistemas*, Arco, Madril, 53-70. or.

Maiatz aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Mari Jose Olaziregi, 2000 (c), "Literaturaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan. Testu iruzkinetarako metodologia eta iradokizunak", *Hegats 28*, EIE, 39-73. or.

Oh! Euzkadi aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Olaziregi, Mari Jose, 1998, *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein, Donostia.

Olaziregi, Mari Jose, 2000 (a), "Euskal literatur sistema milurte berriaren atarian", *Uztaro 34*, 87-96. or.

Olaziregi, Mari Jose, 2001, "La novela vasca: márgenes, centros y demás delimitaciones topológicas", *Insula 654*, 17-20. or.

Peña, J. Francisco eta Fernández, Luis, 2001, *Didáctica de lengua y literatura*, Universidad Complutense, Madril.

Pott aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Robinson, Lillian S., 1998, "Traicionando nuestro texto" in Sullá, Enric, 1998, *El canon literario*, Arco, Madril, 11-34. or.

Stultifera Navis aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Sullà, Enric (coor.), 1998, *El Canon Literario*, Arco, Madril.

Sullá, Enric, 1998, "El debate sobre el canon" in Sullá, Enric, 1998, *El canon literario*, Arco, Madril, 11-34. or.

Susa aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Torrealdai, Joan Mari, 1993, *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Torrealdai, Joan Mari, 1997, *Euskal kultura gaur*, Jakin, Lizarra.

Torrealdai, Joan Mari, *XX. mendeko Euskal liburuen Katalogoa II 1993-1994*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Torrealdai, Joan Mari, *XX. mendeko Euskal liburuen Katalogoa III 1995-1996*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Ustela aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

Villanueva, Darío, 1994, "Pluralismo crítico y recepción literaria", in *Avances. en Teoría de la Literatura*, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, Santiago de Compostela, 11-34. or.

Xaguxarra aldizkaria, Literatur aldizkariaren gordailua, Ibiñagabeitia proiektua, <http://www.kapsula.com/cgi-bin/HTMODLAG>

